

## Aurkezpena

### Antonio Baile – Merkataritza Justuaren Estatuko Koordinatzaileko Presidentea

Merkataritza Justuaren lagun maitea,

Ongietorri Merkataritza Justua Espainian txostenaren emanaldi berri honetara. Aurten izango da Merkataritza Justuaren Estatuko Koordinatzaileak laguntzarik gabe argitaratzen duen lehena. Gure aurrekoek egin duten lanaren maila berean egotea espero dugu, eta batez ere, aurre egin beharreko itxaropenen eta erronken mailan.

Aldez aurretik Espainiako Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenerako Agentziari (AECID), eskerrak eman nahi dizkiogu, bere finantzaketari esker ahalbidetu baitu argitalpen hau, Merkataritza Justuari, Hegoaldeko ekoizleen lanaren eta ekonomiaren hobekuntzarako garapenaren tresna gisa emandako laguntza instituzionalaren eredu berri honetan.

Ez ditugu ahaztu nahi Merkataritza Justuaren Estatuko Koordinatzailea osatzen duten 34 erakundeak ere. Hauek baitira argitalpen honen atzean daudenak eta beren eguneroko iraunkortasunarekin eta esfortzuarekin Koordinatzaile honi bizitza eta zentzua ematen diotenak eta gure herrialdean Merkataritza Justu baten aldeko mugimendua bizirik mantentzen dutenak. Hauen aniztasuna da gure aberastasuna eta beraien lana gure izateko arrazoa.

Egun, argitalpen hau da Estatu Espainoleko Merkataritza Justuaren mugimenduaren erreferentzia nagusia. Gure helburua hau indartzea da merkataritza justiziarekin egiteko modu alternatibo honen aspektu ugari, desberdin eta berritzaileei argi eginez. Oraindik mugimendu txikia garelako jakiteak ematen duen umiltasunetik eta mundu justuagoa, errukitsuagoa eta jasangarriagoa eraikitzeke borrokatzen duen alternatiba batean parte hartzeak ematen digun indarretik eta txosten honekin mundua interpretatzeko eta bertan eragiteko tresna kaxa zabalean pieza bat gehiago sartzeko helburu hutsarekin.

Azken urteetan nazioartean gertatu den krisi ekonomiko bortitzenak astindu duen mundu bat. Hasieran finantzarioa, ondoren ekonomikoa baina baita klimatikoa, energetikoa eta elikaduraren ingurukoa den krisia, hain zuzen ere. Krisi sistematikoa eta dimentsio aniztuna, ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistema ekonomiko globalizatuak sortutakoa, Merkataritza Justuaren mugimenduak duela 40 urte baino gehiago salatu duena. Merkataritza Justuari ere eragin dion krisia; Iparraldeko kontsumitzaileek, eta batez ere Hegoaldeko ekoizleek, zeintzuk egungo krisi hau, ekitatea, jasangarritasuna eta justizia soziala interes ekonomikoen gainetik jarritz ekimen konkretuen bidez duela hamarkada ugari sufritzen eta aurre egiten saiatzen diren. Gure bizitzek eta Planetak sor ditzakeen onurak baino garrantzi gehiago dutelako.

Nazioarteko krisiak eztanda egin zuenetik, eta neurri batean honi erantzuteko helburuarekin, Merkataritza Justuaren Estatuko Koordinatzailean gure herrialdeko merkataritza eta kontsumo eredu alternatibo hau garatzen eta finkatzen jarraitu dugu. 2011 hasieran

Merkataritza Justua sustatzen duten erakunde desberdinak akreditatzeko kidetza sistema berri bat onartu genuen, irizpide objektibo eta zorrotzetan oinarrituz. Gertaera honek aurrerapauso handia suposatu du hiritarrek Merkataritza Justuarengan duten konfiantza areagotzeko, “kontsumo arduratsua” ekimenetik jaiotako eragile eta merkataritza praktika berrien agerpenak markatutako testuinguruan. Justizia sozial edo jasangarritasun barruan kokatzen diren ekoizpen, banaketa edo /eta kontsumo produktuen eskari eta eskaintza interes honek, zalantzarik gabe berri positiboa eta itxaropentsua suposatzen dute, Koordinatzaileko erakundeak banaketa kanal guztien atzean egon ez arren. Nolabait, badirudi zentzu zabala batean, gure herrialdeko Merkataritza Justuaren eta kontsumo arduratsuaren aitzindaria den Estatuko Koordinatzaileko erakundeetatik hamabost urtetan egindako hedapen eta sentsibilizazio lanaren fruituak jasotzen hasi garela. Geroz eta handiagoa den aniztasun honek ondorioztatuko dituen erronken, zailtasunen eta potentzialtasunen aurrean adi egongo gara, denok osatzen dugun justizia sozialaren aldeko mugimendu honen alde indarrak gehitzeko asmo hutsarekin.

Nazioarteko ikuspuntutik, Merkataritza Justuaren Munduko Erakundea bezalako organoak (WFTO, Estatuko Koordinatzailea barne dagoena, Europa zein mundu mailan), estatuko eta nazioarteko topaketa espazio bezala indarra hartzen jarraitzen dute. Krisi orokor baten eta mundu osoan eragina duen nazioarteko merkataritza bezalako fenomeno honen aurrean (justua zein ohizkoa), partekatutako azterketak, koordinatutako erantzunak eta elkarlanean egiten diren ekimenak ezinbestekoak dira. Izan ere, krisi honek positiboa den zerbait utzi badigu, izan dituen zorigaiztoko talkez harantzago, egungo nazioarteko sistema ekonomikoaren eta komertzialaren salaketa amorratua indarrean egoten jarraitzen duela da, eta geroz eta beharrezkoagoa da ekoizteko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko modu alternatiboen aldeko apustuak egitea. Beraz, arau bidegabeek arautzen duten nazioarteko kapital pribatuen interesen aldeko merkatal sistema globalizatuaren salaketan aurrera egitea ahalbidetzen duten geroz eta tinkoagoak diren hitzarmenak egiten jarraituko dugu, baita mundu mailan bere ardatzen artean Merkataritza Justua dagoen alternatiba erreala baten eraikuntzan ere.

Txosten honekin krisiaren ondorio bikoitzei argia ematea nahi diogu: honek izan dituen eragin anitzak eta aurretik aipatu dugun eta krisi hau sortu duen produkzio eta merkataritza sistemarentzako alternatibak diseinatzeko eta eraikitzeiko behar larria. Horretarako, txosten hau hiru atal nagusitan eraiki dugu. Lehenengoan ohizko txosten kuantitatiboa agertzen da, non Estatuko Koordinatzaileko kide diren inportatzaileek egindako Merkataritza Justuko produktuen salmentak erakusten dituen, izaera pribatua duten beste erakunde batzuek egindako Fairtrade ziurtagiria duten produktuen salmenten sektore-azterketa batekin osatua. Gainera hiru urteko iraupena duen krisi honetako balantzea eta perspektibak ere aipatzen ditugu. Bigarren atala krisiak Merkataritza Justuan izan duen eragina azaltzen da, Iparraldeko kontsumitzaile arduratsuan oinarrituta hiru ikuspuntu desberdinetatik, hots, Asia, Afrika eta Amerika Latindarra, erakunde ekoizle desberdinen eskutik.

Amaitzeko, hirugarren atalean Merkataritza Justuaren eta beste esparru eta gaien (finantzak, etikak, garapen ekonomikoa) arteko zubia edo elkarriketa ezartzea bilatzen da egungo sistema ekonomikoaren alternatibak pentsatzeko eta egungo krisiaren azterketa konkretutik harantzako joateko. Bertan Merkataritza Justuko Estatuko Koordinatzaileak Europar batasunaren eta garapen bidean dauden zenbait herrialdeen artean dauden merkataritza hitzarmenen inguruan 2011 urte hasieran onartu zuen jarrera sartu dugu. Orain proposatu diren baldintzetan sinatuko

diren merkataritza libreko hitzarmen hauetatik ondorioztatuko da, egungo krisi ekonomikoa gainditzen denean, mundu osoko milioika pertsona, krisi sistematiko iraunkor batean bizitzera kondenatuko dituen eredu komertzial globalean harrapatuta jarraitzea. Merkataritza Justuaren azken helburua ekoizleen bizitza kalitatea hobetzea bada, Estatuko Koordinatzailetik ezin dugu helburu honen kontra ematen diren pausoak salatzen jarraitzeari utzi. Negoziazio hauen prozesuak irekita egoteak, hauek indarrean jarraitzen dutela justifikatzen du baita arazo honen aurrean eztabaida eta ekintza beharrezkoa direla ere, argitalpen honek azaldu nahi duen txanpon berdinen beste aldea, hain zuzen ere.

Irakurketa ona izan!



Coordinadora Estatal de Comercio Justo  
C/ Santísima Trinidad, 30 1º 8 28010 Madrid  
91 299 38 60 [estudios@comerciojusto.org](mailto:estudios@comerciojusto.org)  
[www.comerciojusto.org](http://www.comerciojusto.org)